

JESUKRISTO GURE JAUNAREN

GURUTZEKO ZAZPI ITZAK

Lenengo itza

«Nere Aita, barka eqiezu ni
onela tratatzen nautenai, fiada
ez dakite zer egiten duten».

Kantua

¡O gure artzai, artzai zerutar
Jaungoiko Jaungoikozkua,
Beartsurikan bada munduban
Beartsu egiyazkua!
Gurutzetikan zinzilik zauden
Eguzki Belenekua,
Donekar Israelkua,
Illargi Golgotakua.
Erakutsirik mundutar denoi
Izaten amodiyua,
Zaude eskatzen Borreroentzat
Aitari barkaziyua.

Bigarren itza

«Gaur egongo zera nerekin
batera Paradisuan».

Kantua

¡O gure Jesús chit errukitsu
Jesús beneragarriya!
Lapur onantzat bezela izan
Zazu gure errukiya;
Ogiya baiñon gozoagoko

Gure janari garbiya,
¡O gure zuzendariya!
¡Zeruko maitategiya!
¿Nola ez bada zuk guri egin
Paradisuan tokiya,
Baldin ta baldin guregatikan
Bazaude illtzez josiya?

Irugarren itza

*Ama chit Santari esaten diyo
Sun Juan señalatubaz: «Orra
or zure semea»: San Juan-i
diyo esaten, Ama chit Santa se
ñalatubaz: Orra or zure Ama.*

Kantua

¡Zer samiña, zer tristea dan
Gaurko zure agoniya,
Negar egiñaz jarritzeraño
Zure Gurutze mendiyala!
Alaz guziyaz poztu nai dezu
Arnacho garbi-garbiya,
Amacho eri-eriyala,
Amacho errukarriya.
Nai dezu poztu ama bezela
Done Juan maitagarriya:
Zuri begira urtutzen dagon
Santu begiragarriya.

Laugarren itza

«¡Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa! ¿Zergatik desanparatu nazu?»

Kantua

¡O gure Jesús, Jesús ta Jesús,
Gure artzai on maitia!
¿Ez aldakizu zerdan zeruko
Aitaren borondatia?
Nunbait ark naidu zuk orrenbeste
Oñaze sufritutzia,
Zuk gu erredimitzia,
Eta zeruratutzia.
Naidu Gurutze Santu orretan
Bertan odol ustutzia,
Bai eta ere arratsaldeko
Iru ordutan iltzia.

Bostgarren itza

«Egarri naiz».

Kantua

¡O Jesús ona! ¿zer da ordea
Zuk daukazun egarriya,
Zure burutik oñetaraño
Baldin badator euriya?
Eguzkiyaren azpiya nola
Daukazun ongi guztiya
Birtutez irabaziya,
Kristauturik basatiya,
Artaldearen gatik ematen
Dezularikan biziya.....
Arkume batzuk galdutzea da
Zure egarri larriya.

Seigarren itza

«Kunplituba edo egikarituba dago guziya».

Kantua

Zu era ortan ikusitzia
Erodes-ek du atsegin;
Lonjinos ere lantza zorratz bat
Odoldu nayan badabil;
Nola Anas-ek, ala Kaifas-ek
Pozaz badute irakin.....
Baiñan Pilatos ¿nun dabil?
Esku garbitzen aldabil?
Judas paltsoa, etoi gaiztoa,
Zokorik-zoko ¿zer abil?
Jauna salduta, diruba artuta
Ere buruba naidek il?

Zazpigarren itza

«Nere Aita, zure eskuetan utzitzen det nere espiritu edo bizikaya».

Kantua

Nabarmendurik oñazeakin
Ugeldu eta zauriyak,
Biyotza lantzaz pasatu dizu
Lonjinos lotsagarriyak;
Ta ikusirik oraiñ guk zure
Odolezko iturriyak,
Gaude samiñ ta eriyak,
Egiñaz antsi aundi yak.
Daude negarrez Ichasua ta
Munduko ibar-mendiyak,
Zuazelako estalit zera
Begi yetako.... niniyak.

